



«Kontaiguzu Ondarea! Ondarea eta Hezkuntza» da Ondarearen Europako Jardunaldien V. edizioaren programaren izena. Europako Kontseiluaren ekimen honen xedea da ondarearen garrantzia balioetsi eta herritarrei gerturatzea. "Kontaiguzu ondarea. Ondarea eta Hezkuntza" izenburupean, aurren, transmisioak -ondarea herritarrei kontatzeak eta azaltzeak- ondarea kontserbatzeari eta gozatzeari begira betetzen duen zereginean jarri nahi dute arreta. Halaber, hezkuntza erakundeei eta utzi diguten ondare materialari zein immaterialari balioa ematea da helburua.

Izan ere, "Kontaiguzu Ondarea. Ondarea eta Hezkuntza" osatzen duten jarduerak hezkuntza erakundeen ondarea aztertzen duten proposamenak bildu dituzte; adibidez, Ordizian, «Ordiziako irakaskuntzari begirada bat» erakusketa irekiko da urriaren 1ean D'Elikatuz zentroan. "Erakusketa honen bidez, Ordizian XIX mende amaieratik orain arte egondako Ikastetxe desberdinak gogora ekarri nahi dira; hasiera batean, asko Kongregazio erlijiosoen eskutan zeudenak (Maristak, karmelitak, La Salle, Milagrosa...) baita Estatuaren mende zeuden Zentru publikoak, Lantegietatik sortutako eskolak (CAF), ikastolak...

Ikasle, irakasle, eta ikastokien argazkiak ikusi ahal izango dira, baita ikasturte amaieran ikastetxe guztiek elkarrekin egiten zituzten jaienak ere, hezkuntza prozesuaren atzean dagoen ondare material nahiz immateriala balioan jarriz.

Argazkiez gain Donostian bizi den Mari Tere Martinez artista Ordiziarrak egindako kongregazio desberdinen irudi edo panpin desberdinak eta Lenbur Fundazioak utzitako aspaldiko ikasmahai eta arbel bat ere ikusi ahal izango dira.

Erakusketa D'elikatuz Zentroaren irekiera ordutegian irekita egongo da hilabete osoan zehar eta urriaren 17an bisita gidatua eskeinitako da 10.00tan euskeraz eta 11.30tan gazteleraz. D'elikatuz Zentroan edo 943882290 telefonoan izena ematea ezinbestekoa da aforo kontuengatik.